



Antsoaino
Udala
Ayuntamiento
de Ansoáin

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2024 APIRILA-ABRIL / Nº 38. ALEA

ANTSOAIN



Antsoainek
M-8a ospatu zuen
Ansoáin celebró
el **8-M**

Argitaratzailea:

Antsoaino Udala.

Erredakzio Kontseilua:

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

Egilea: Heda Comunicación, S.L.

Argazkiak: Jon Urriza, Pablo García.

Ale kopurua: 4.700 ale.

Doako banaketa.

Edita: Ayuntamiento de Ansoáin.

Consejo de Redacción:

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

Realiza: Heda Comunicación, S.L.

Fotografías: Jon Urriza, Pablo García.

Tirada: 4.700 ejemplares.

Difusión gratuita.

D.L. - L.G.: NA 942-2016

Udal jantoki kolektiboaren proiektu pilotua aurkeztu da

Presentado el proyecto piloto de comedor colectivo municipal

Jarduera ugari 'La Fuga' mendi lasterketaren inguruan

Numerosas actividades en torno a la carrera 'La Fuga'

JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES



Antsoaino Udala Ayuntamiento de Ansoáin



Antsoaino Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Saio parte-hartzaileak, 2024-2030eko Plan Estrategikoaren ezaugarriak eta helburuak zedarritzeko

Sesiones participativas para delimitar las características y objetivos del Plan Estratégico 2024-2030

Aurreko fase honetan, hainbat saio egin dira udal teknikariek eta politikariek

En esta fase previa se han llevado a cabo sesiones con personal municipal técnico y político

Urtarrilean eta otsailean aurreko fasea egin da Oinarrizko Proiektua prestatzeko. Dokumentuak hainbat gauza zehaztu ditu, hala nola lan esparrua, epeak, prozesuaren helburu nagusia, diseinuan txertatu beharreko balioak eta erabili beharreko gobernantza eredua, Antsoaingo herritar guztien ikuspuntua txertatzeko aldera, bai eta herriko eragile politi-

koen, sozialen eta ekonomikoen ikuspegia ere. Hiru lan esparru osatu dira: Talde Eragilea, gobernu-taldearen ordezkariak eta udal idazkaria daudela; Talde Politikoa, udal talde guztien ordezkariak osatua; eta Talde Teknikoa, udal alor guztietako hainbat langilek osatua. José Costero aholkulariaren laguntza teknikoa jaso da.

agentes políticos, sociales y económicos. Se han constituido tres espacios de trabajo: Grupo Motor, con representantes del equipo de gobierno y la Secretaría Municipal; Grupo Político, con representantes de todos los grupos políticos municipales; y Grupo Técnico, con personal de todas las áreas municipales. Se ha contado con la asistencia técnica del consultor José Costero.



Antsoainek 338.089,93 euroko aurrezki garbia izan du 2023 bukaeran

Antsoaingo Udalak 338.089,93 euroko aurrezki izan zuen urtearen bukaeran, eta 1.245.053 euroko diruzaintza gertatu zuen gastu orokorretarako. Inbertsioen artean, nabarmentzekoak dira eguneko zentro komunitarioko lanak eta ekipamendua (126.966,12 euro), Idaki kiroldegian plaka fotovoltaikoak paratzea (93.709,39 euro), argiteria publikoan izandako berrikuntzak (89.438,24 euro), igerileku estaliaren berrikuntza (88.153,58 euro), Ezkaba ikastetxeko lanak (50.455,72 euro) eta kirol instalazioetarako makinaren erosketak (49.243,21 euro).

Ansoáin cierra 2023 con un ahorro neto de 338.089,93 euros

El Ayuntamiento de Ansoáin finalizó el año pasado con un ahorro neto de 338.089,93 euros y un remanente de tesorería para gastos generales de 1.245.053 euros. Dentro de las inversiones, destacaron las obras y equipamiento del centro diurno comunitario (126.966,12 euros), la instalación de placas fotovoltaicas en el polideportivo Idaki (93.709,39 euros), las renovaciones del alumbrado público (89.438,24 euros) y de la piscina cubierta (88.153,58 euros), las actuaciones en el Colegio Ezkaba (50.455,72 euros) y la adquisición de maquinaria para las instalaciones deportivas (49.243,21 euros).

Lehiaketa-oposizioan da Udaleko giza baliabideetarako zuzendari lanpostua / Sale a concurso-oposición la plaza de dirección de recursos humanos del Ayuntamiento

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak giza baliabideetarako zuzendari lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi du. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu da, eta aldi baterako izangaien zerrenda ere osatzea aurreikusi du, izan daitezkeen beharrei aurre egiteko.

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento ha aprobado la convocatoria para la provisión mediante concurso-oposición, de la plaza de dirección de recursos humanos. La convocatoria, ya publicada en el B.O.N., prevé también la constitución de una relación de personas aspirantes a la contratación temporal para dar cobertura a las necesidades que se produzcan.

Udal jantoki kolektiboaren proiektu pilotua aurkeztu da

Presentado el proyecto piloto de comedor colectivo municipal

Janari osasungarriak zerbitzatzeko eskaintza eginen die adinekoei eta/edo desgaitasuna duen jendeari dela Ostoki Zentroan, dela etxez

Ofrecherà un servicio de comidas saludables en el Centro Ostoki y a domicilio a personas mayores y/o con discapacidad

Ekimena joan den martxoaren 14an aurkeztu zen Antsoaingo Antzokian, hau da, Jantoki Kolektibo Osasungarri eta Jasangarria sortzeko Proiektu Pilotua Antsoaingo 65 urtetik gorakoendako eta/edo desgaitasuna duen jendearendako. Ekimena “Antsoain, Zaintzen duen Herria” proiektuan sartua dago. Ekitaldira 250 pertsona inguru hurbildu ziren.

Udalak, Nafarroako proiektu aitzindari horrek duen garrantzia nabarmentzeaz gain, bere konpromisoa agertu zuen elikadura arloko estrategia bat eraikitzen joateko gure herrirako.

Proiektuaren talde eragilean kide dira Mirua s. microcoop. (laguntza teknikoa), Ana Lusar (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak), Naiara Aizpuru eta Nerea Martínez (“Antsoain, Zaintzen duen Herria” proiektuaren dinamizatzaileak) Jon Garai (zinegotzia) eta Elena Ugarte (zinegotzia eta Oinarrizko

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko burua). Proiektuaren aurkezpenean, helburuak, faseak eta hartan parte hartzeko irizpideak azaldu ziren. Proiektu pilotua aurtengo udazkenean eginen da; zehazki, eguerdiko otordu zerbitzua izanen da, astelehenetik ostiralera, Ostoki Zentro Komunitarioan, bai eta etxez etxeko zerbitzuaren bidez ere.

Kalkuluen arabera, proiektu pilotuan 50 lagun inguruk parte hartzen ahalko dute eta helburua da zerbitzua bera aztertzea eta behar den informazio guztia sortzea ondorioak eta ikasbideak ateratzeko, etorkizunean zerbitzu ona bermatze aldera.

Izena emateko epea **apirilaren 12ra** arte egonen da zabalik. Lapurbide Eguneko Zentro Komunitarioa joan beharko da izena ematera, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.



El pasado 14 de marzo se presentó en el Teatro de Ansoáin el Proyecto Piloto de creación de un Comedor Colectivo Saludable y Sostenible para personas mayores de 65 años y/o con discapacidad de Ansoáin, dentro del proyecto “Ansoáin, comunidad que cuida”. Al acto acudieron alrededor de 250 personas.

Desde el Ayuntamiento se destacó la importancia de este proyecto pionero en Navarra y el compromiso de seguir dando pasos en la construcción de una estrategia alimentaria para nuestra localidad.

El grupo motor de este proyecto está formado por la asistencia técnica de Mirua s. microcoop., Ana Lusar (Servicios Sociales de Base), Naiara Aizpuru y Nerea Martínez (dinamizadoras del proyecto “Ansoáin, comunidad que cuida”), Jon Garai (concejal) y Elena Ugarte (concejala y presidenta de la Mancomunidad

de Servicios Sociales de Base).

En la presentación se compartieron los objetivos, fases y criterios de participación en el mismo. El proyecto piloto se llevará a cabo en otoño de este año y será un servicio de comida a mediodía de lunes a viernes en el Centro Comunitario Ostoki y también a través de servicio a domicilio. El proyecto piloto, en el que se calcula que podrán participar alrededor de 50 personas, busca probar el servicio y generar toda la información necesaria para sacar conclusiones y aprendizajes necesarios con el objetivo de poder garantizar un buen servicio en el futuro.

El plazo de inscripción permanecerá abierto hasta el próximo **12 de abril** y para apuntarse habrá que acudir al Centro Diurno Comunitario Lapurbide de lunes a viernes, de 10:00 a 13:00 horas.

Berriz ere lizitatu da igerilekuetako taberna-jatetxea / Nueva licitación para la gestión del bar restaurante de las piscinas

Antsoaingo Udalak berriz ere lizitatu du udal igerilekuetako taberna-jatetxearen kudeaketa, bai eta futbol-zelaiko taberna-etxolarena ere, lehen lizitazioa banatu gabe gelditu baitzen joan den abenduan.

Baldintza berriek kalitatezko zerbitzua ematea lehenetsiko dute kudeaketa esleitzean, dirua biltzeko nahiaren gainetik; horrenbestez, bereziki baloratuko da elikadura-eskaintza jasagarria eta osasungarria izatea (22 puntu) eta enpresa lizitatuzaileen lanbide es-

perientzia (30 puntu). Bestelakoak ere hartuko dira kontuan, hala nola zerbitzuan hobekuntzak egitea (23 puntu), euskaraz jakitea (10 puntu) eta 65 urtetik gorakoendako prezioetan deskontuak egitea (5 puntu).

Eskaerak aurkezteko epea datorren apirilaren 5ean bukatuko da. Nabarmendu behar da, halaber, Udalak taberna-jatetxearen itxiera baliatu duela, aretoan garbitze, elektrizitate eta margotze lanak egiteko.

El Ayuntamiento de Ansoáin ha hecho pública la nueva licitación para la gestión del bar restaurante de las piscinas municipales y de la caseta bar del campo de fútbol, tras declararse desierta la primera licitación el pasado mes de diciembre.

El nuevo condicionado va a primar a la hora de adjudicar la gestión la prestación de un servicio de calidad por encima del afán recaudatorio, por lo que se valora especialmente que la oferta alimentaria sea sostenible y saludable (22 puntos) y la experiencia profesional

de las empresas licitadoras (30 puntos). También se tendrán en cuenta otros aspectos como las mejoras en el servicio (23 puntos), el conocimiento del euskera (10 puntos) o la inclusión de descuentos en los precios para personas mayores de 65 años (5 puntos).

El plazo de presentación de solicitudes finaliza el próximo 5 de abril. Destacar, igualmente, que el Ayuntamiento ha aprovechado el cierre del bar restaurante para llevar a cabo diferentes trabajos de limpieza, electricidad y pintura en el local.

Udalak esker ona adierazi dio Arantza Biurrun zinegotziari bere konpromiso eta arduragatik / El Ayuntamiento agradece su dedicación y compromiso a la concejala Arantza Biurrun



■ Arantza Biurrun PSNko zinegotziak agur esan dio Udalari, 29 urtean herrian zinegotzi izan eta gero. Joan den urtarrilaren 31ko osoko bilkuran, Udalak esker ona adierazi zion herriaren alde zazpi legealdian egindako lanagatik eta erakutsitako konpromisoagatik. Marta Díez Napal Antsoaingo alkateak azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela emakumeak politikan aritzea eta arlo horretan egindako ekarpena eskertu zion.

Arantza Biurrun 1995ean sartu zen udalean PSNko zinegotzi gisa, eta, orduz geroztik, hainbat ardura bete ditu hala gobernu taldean nola oposizioan. Izan ere, garai batean, ardura politikoak izan zituen hainbat udal alorretan, alkateordea izan zen, eta udalaren ordezkaria udalerriz gaindiko hainbat erakundetan.

■ La concejala del PSN Arantza Biurrun se despidió del Ayuntamiento tras 29 años como edil en la localidad. En el pleno celebrado el pasado 31 de enero, el Consistorio expresó "su agradecimiento por su trabajo y compromiso con la comunidad a lo largo de siete legislaturas". La alcaldesa de Ansoáin, Marta Díez Napal, destacó en su discurso la importancia de la presencia de las mujeres en la política y le agradeció su aportación en este sentido.

Arantza Biurrun entró en el Consistorio en 1995 como concejala del PSN, y desde entonces ha desempeñado diversas responsabilidades tanto en el equipo de gobierno -tuvo responsabilidades políticas en diferentes áreas municipales, fue teniente de alcalde y representó al municipio en diversas entidades supramunicipales- como en la oposición.

¿Te gustaría poder ver bien de lejos y de cerca sin gafas?
Ven a probar las nuevas lentillas progresivas y olvídate de tus gafas.

Las **lentillas progresivas** están diseñadas para lograr una buena visión en todas las distancias, convirtiéndose en la mejor solución para personas con problemas de visión, ya sea para ver de lejos o de cerca.

optica **avenida**

Avenida Villava 47a · Pamplona/Iruña (Navarra) · 31015 · Tf: 948 12 53 27

Jarduera ugari 'La Fuga' mendi lasterketaren inguruan

Numerosas actividades en torno a la carrera de montaña 'La Fuga'

Lasterketaren
lehen edizioa
maiatzaren 18an
eginen da

La primera
edición de la
carrera tendrá
lugar el próximo
18 de mayo



Maiatzaren 18an, La Fuga Mendi Lasterketaren lehen edizioa egingen da. 53 kilometroko mendi lasterketa da GR-225en barna, hau da, Ezkaba mendiko espetxetik ihes egindako preso aunitzek 1938ko maiatzaren 22an erabilitako bidexkan barna. Horrela, omenaldia egin nahi zaie presondegiko baldintza latzetatik ihesi ihesaldian parte hartu zutenei. Hiruk bakarrik lortu zuten muga bizirik gurutzatzea. Gainerakoetatik, 206 mendian erail eta 586 harrapatu zituzten. Azken horien arteko 46 fusilatu zituzten ihesaren buruak zirelakoan.

Proba Hiru Herri Atletiko Taldeak antolatu du, eta babesle dira Nafarroako Gobernua eta hainbat Udal (Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Iruñea, Atarrabia, Uharte eta Urepel). Halaber, memoria arloko hainbat elkarte dira laguntzaileak.

Lasterketa, Ezkabako gainetik 8:00etan abiatu eta Urepelen bukatuko da. Bestalde, 7:00etan irteera neutralizatuak izanen dira

El 18 de mayo se celebrará la primera edición de La Fuga Mendi Lasterketa, una carrera de montaña de 53 kilómetros que discurrirá por la GR-225, el sendero que utilizaron muchos de los fugados del Fuerte San Cristóbal el 22 de mayo de 1938.

De esta manera se quiere rendir homenaje a quienes participaron en aquella fuga escapando de las duras condiciones del penal. Solo tres lograron cruzar vivos la frontera, el resto (206) fueron ejecutados en el terreno o atrapados (586) y, entre ellos, se fusiló a los considerados cabecillas (46).

La prueba está organizada por el Club Hiru Herri Atletiko Taldea con el patrocinio del Gobierno de Navarra y los Ayuntamientos de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Burlada, Pamplona, Villava, Huarte y Urepel, además de la colaboración de varias asociaciones de la Memoria. La carrera partirá a las 8:00 del alto de Ezkaba y concluirá el pueblo de Urepel. A las 7:00 habrá salidas

Berriozarren eta Antsoainen, emakumeek presoiei arropa, janaria eta bestelakoak eramateko erabiltzen zuten bideari jarraikiz.

Lasterketak bi kategoria izanen ditu, emakumezkoena eta gizonezkoena, eta ez da inolako diru saririk banatuko. Lasterkari guztiek aukera izanen dute Urepeleko herri bazkarian parte hartzeko, eta, 5 euro ordainduz, antolatzaileek jarritako autobusean itzultzeko.

Hala, lasterketari buruzko informazio guztia www.lafugamendilasterketa.com webean dago, bai eta izena emateko esteka ere.

Memoriaren Astea

Lasterketa egin aurreko egunetan (maiatzaren 13tik 17ra), memoria historikoari buruzko hainbat jarduera egingen dira Antsoainen. Besteak beste, kontzertu akustiko bat, poesia-mikro ireki bat, GR-225i buruzko solasaldia, erakusketak, antzeppen bat, etab.



neutralizadas en Berriozar y Ansoáin, siguiendo las rutas del agua que utilizaban las mujeres para llevar a los presos ropa, comida y otros enseres.

La carrera constará de dos categorías sin dotación económica, una masculina y otra femenina.

Todas las personas participantes podrán participar en una comida popular en Urepel y, si abonan 5 euros, volver en un autobús fletado por la organización.

La página web www.lafugamendilasterketa.com recoge toda la información sobre la carrera y el enlace para realiza la inscripción.

Semana de la Memoria

Los días previos a la carrera (del 13 al 17 de mayo) Ansoáin acogerá varias actividades en torno a la memoria histórica. Entre ellas, está previsto un concierto acústico, un micro abierto de poesía, una charla sobre la GR-225, exposiciones, una función de teatro, etc.

Zure iragarkia
Anunciate en

Udaleren informatzio aldizkaria
Boletín de información municipal

ANTSOAIN

Antsoaingo
postontzi
guztietan
Buzoneo a
todos los
vecinos/as
948 13 67 66

Lapurbide, 12
ANTSOAIN
623 323 079
948 120252

MERCERÍA

OSINAGA

Antsoainek udalerriko LGTBI+ egoera du aztergai

..... Ansoáin analiza la realidad LGTBI+ en el municipio

■ Udala Antsoaingo LGTBI+ diagnostikoa egiten ari da. Nommad kooperatibari enkargaturik, azterlanean udalez gaindiko teknikariak eta politikariak ari dira parte hartzen, bai eta herritarrek ere, elkarrizketa, talde dinamika eta inkestak bidez.

Diagnostikoaren bidez, Antsoaingo LGTBI+ errealitateak ezagutu nahi dira, ondoren sexu eta genero dibertsitateari eta LGTBI+ berdintasunari buruzko Udal Estrategia bat formulatu eta garatzeko, betiere par-

■ El Ayuntamiento está elaborando un diagnóstico LGTBI+ de Ansoáin. El estudio, encargado a la cooperativa Nommad, cuenta con la participación del personal técnico y político supramunicipal y de la población a través de entrevistas, dinámicas grupales y encuestas.

Mediante este diagnóstico se pretende conocer las realidades LGTBI+ de Ansoáin, para posteriormente formular y desarrollar de forma participada una Estrategia Municipal de diversidad sexual y de género e igualdad LGTBI+ del municipio.

taidetzan oinarriturik. Diagnostikoa prestatzeko prozesuan, besteak beste aztergai izanen dira LGTBI+ errealitatearekin lotutako erakundeak eta eragileak, LGTBI+ pertsonen eta entitateen egoera, udal politikak eta haien LGTBI+ ikuspegiak, eta herritarren sentiberatasuna bai sexu eta genero dibertsitatean, bai LGTBI+ eskubideetan. Era berean, bazterkeria, indarkeria eta LGTBIfobia egoerak atzeman nahi dira, eta lurraldean diren beharrak, erronkak eta elementu estrategikoak ere bai.

En el proceso de elaboración del diagnóstico se analizarán, entre otras cuestiones, las entidades y agentes relacionados/as con la realidad LGTBI+, la situación de las personas y entidades LGTBI+, las políticas muni-

cipales y su perspectiva LGTBI+ y la sensibilidad ciudadana en materia de diversidad sexual y de género y de derechos LGTBI+. También se pretende detectar situaciones de discriminación, violencia y LGTBIfobia e identificar las necesidades, retos y elementos estratégicos en el territorio.



Antsoain
LGTBI+

Nortasunak bizi, herria hazi
Vivir identidades, crecer como pueblo

Liburu gehiago Liburutegi Publikoko "Feminismoak" atalerako / Más libros para la sección "Feminismos" de la Biblioteca Pública

■ Antsoaingo Berdintasun Zerbitzuak eta Liburutegi Publikoak "Feminismoak" atala zabaldu dute, 61 liburu eskuratuz, guztiak ere Udalak Liburutegiari dohaintzan emanak. Era askotariko generokoak dira, hala nola narrazioa, saiakera, biografia, haur eta gazte literatura, poesia eta komikia.

Eskaintza berria ezagutzera emateko, Berdintasun zerbitzuak aldizkari bat argitaratu du, eskuratu diren argitalpenak bilduta. Laster, etxeko banatuko da gure udalerrian.

2024 APIRILAK 23 ABRIL
Liburuaren Eguna
Día del Libro

BERDINTASUNA IRAKURRI
LEE IGUALDAD

■ El Servicio de Igualdad y la Biblioteca Pública de Ansoáin han ampliado la sección "Feminismos" con un total de 61 nuevos libros donados por el Ayuntamiento a la Biblioteca. Las nuevas adquisiciones incluyen publicaciones de géneros variados como narrativa, ensayo, biografía, literatura infantil y juvenil, poesía y cómic. Para dar a conocer la nueva oferta, el Servicio de Igualdad ha editado una revista que reúne las publicaciones adquiridas y que se va a buzonear en breve en el municipio.

Talleres Ostondo
Chapa • Pintura • Mecánica integral
Neumáticos • Aceite

Grandes descuentos en chapa y pintura

Trabajamos con todas las compañías de seguros

HORARIO ININTERRUMPIDO
LUNES A VIERNES
de 8:00 a 16:00 h.

E-mail: info@talleresosostondo.es
Ctra. Ansoáin, 13 • 31013 Ansoáin - Tel. 948 132 500 • 661 045 283

Antsoainek Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zuen

Ansoáin celebró en marzo el Día Internacional de las Mujeres

■ Martxoaren 8a hasteko, hamaiketakoa egin zen Lapurbide Zentroan, eguerdian udaletxe aurrean egindako kale bilkuraren aurretik. Elkarretaratzean, udaleko teknikariek eta politikariek parte hartu zuten, bai eta herritarrek ere. Udalak onetsitako adierazpen instituzionala irakurri zen, herritarrek gonbidatzeko bai matxismoa isilaraztera, bai feminismoaren eta haren aldarrikapen aurka gorrotoa zabaltzen dutenei aurre egitera. Ondoren, Antsoaingo Ardi Xuri Dantzazaleak eta Rosa de Bulgaria aritu ziren.

Martxoan zehar, bestelako ekitaldiak ere egin dira. Horrela, martxoaren 1ean, Las niñas de Cádiz taldeak “Las bingueras de Eurípides” taularatu zuen, Antsoaingo Antzokia jendez lepo zegoela, eta martxoaren 7an, berriz, Aroa Berrozpek eta Susana Soletok “La maja y la mona (o viceversa)” lana an-tzeztu zuten; hilaren 12an, “Komunikazio ez bortitza” gaiari buruzko solasaldia egin zen, Eskutik familien eskolak antolaturik, eta hilaren 15ean, azkenik, zine-forum saioa, “Manual de la buena esposa” filma emateko, María Castejónnek iruzkindua, zinema kritikaria baita eta aditua ikus-entzunezkoetako genero-irudikapenetan.

■ La jornada del 8 de marzo comenzó con un almuerzo en el Centro Lapurbide, antes de la concentración del mediodía frente al Ayuntamiento, en la que participó personal técnico y político municipal junto a la ciudadanía. Allí se leyó una declaración institucional aprobada por el Pleno municipal en la que se invitaba a silenciar el machismo y a hacer frente a quienes vierten odio contra el feminismo y sus reivindicaciones. A continuación, hubo una actuación a cargo de Antsoaingo Ardi Xuri Dantzazaleak y de Rosa de Bulgaria.

La programación se extendió a lo largo del mes con otras actividades. El 1 de marzo la compañía Las niñas de Cádiz representó en un repleto Teatro de Ansoáin “Las bingueras de Eurípides”, y el 7 de marzo Aroa Berrozpe y Susana Soletok pusieron en escena la obra teatral “La maja y la mona (o viceversa)”; el 12 de marzo hubo una charla sobre “Comunicación no violenta”, organizada por la escuela de familias Eskutik; y el 15 de marzo se celebró una sesión de cine fórum con la película “Manual de la buena esposa”, comentada por María Castejón, experta en representaciones de género en audiovisual y crítica de cine.



Eskutik familien eskolak beste hitzaldi bat antolatu du / Nueva charla de la escuela de familias Eskutik



■ Eskutik familien eskolak beste topaketa bat eginen du Loza Kultur Gunean apirilaren 8an, 17:00etan, Udalak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitatearekin elkarlanean antolaturik. Zehazki, Itxaso Torregrosa sexologoak honako gai hau izanen du hizpide: “Nola landu dezakegu sexualitatea etxean?”. Internet bidez eman behar da izena honekin batera dagoen QR eskaneatuz. Argibiderik nahi izanez gero, jo Berdintasun Zerbitzura (igualdad@ansoain.es). Doako kontziliazio zerbitzua izanen da. Urtea hasi denetik, Eskutik erakundeak beste hiru hitzaldi eskaini ditu familiendako: bat seme-alaben autonomiari buruz, beste bat pornografía digitalaren gainean, eta hirugarrena, berriz, komunikazio ez bortitza. Hiruei ere entzuleek harrera ona eman diete.

■ El Centro Cultural Loza acogerá el 8 de abril a las 17:00 horas un nuevo encuentro de la escuela de familias Eskutik, organizado por el Ayuntamiento en colaboración con la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base. Ese día la sexóloga Itxaso Torregrosa hablará sobre “¿Cómo podemos trabajar la sexualidad en casa?”. Las inscripciones pueden realizarse por internet escaneando el QR adjunto y se puede solicitar más información en el Servicio de Igualdad (igualdad@ansoain.es). La charla contará con servicio de conciliación gratuito. Desde comienzos de 2024, Eskutik ha ofrecido otras tres charlas para familias: una sobre la autonomía de hijas e hijos, otra sobre pornografía digital y una tercera sobre comunicación no violenta, todas muy bien acogidas por el público asistente.

Herritarren berdintasun arloan dituzten beharrak ezagutzeko galdetegia

■ Udaleko Berdintasun Zerbitzuak galdetegi laburra prestatu du Antsoaingo herritarrek berdintasunaren arloan eta indarkeria matxistetan dituzten beharrak, kezak eta eskariak ezagutzeko. Galdetegia eskuratzeko, eskaneatu informazio honekin batera dagoen QRa. Zure iritzia garrantzitsua baita!



Cuestionario para conocer las necesidades de la población en materia de igualdad

■ El servicio de Igualdad del Ayuntamiento ha elaborado un breve cuestionario para conocer las necesidades, inquietudes y demandas de la ciudadanía de Ansoáin en materia de igualdad y violencias machistas. Puedes acceder al mismo escaneando el QR que acompaña a esta información. ¡Tu opinión importa!

Tailer berriak: martxa nordikoa eta emozioetarako kirola

■ Lapurbide eta Ostoki eguneko zentro komunitarioek berriz ere eskaini dituzte joan den urrian programatutako bi jarduera: "Martxa nordikoa" eta "Emozioetarako kirola". Izan ere, behin bi jardueren ebaluazioa eginik, eta jendearen aldetik harrera ona izan zutela eta berriz ere egiteko gogoia zegoela ikusirik, berriz abiarazi dira maiatzera arte, leku guztiak beteta.

Zehazki, martxa nordikoan aritzeko tailerlean 14 lagunek eman dute izena (haietako 4 lehen aldiz ari dira). Lapurbiden elkartzen dira, astelehenero, 9:30etik 11:00etara. Lehen egunean, makilen teknika irakasten zaie, gihar guztiak mugitzen eta postura zuzentzen ikas dezaten, sarkopeniarik ez izateko (gihar masaren galera).

Ateraldiak era askotakoak izaten dira. Zenbaitetan, mendira, eta beste batzuetan, berriz, herrian ibiltzen dira karriz karriz. Bukatzeko, saio guztietan luzapenak egiten dituzte.

Ona gorputzez eta buruz

Emozioetarako tailerra (argazkian) emakumeei bakarrik dago zuzendua, eta helburua da parte-hartzaileek onura fisikoa lortzeaz gain, ahaldundu daitezela eta saioei probetxu emozionala ateratzea. Horretarako, hainbat kirol jarduera egin eta emozioak genero desberdintasunaren ikuspegitik lantzen dira. Behin batean, adibidez, boxeoa egiten dute barneko amorrua ateratzeko eta, beste batean, berriz, pilates egiten irakasten zaie arnasten ikasteko. Saioak bukatzean, bateratze lana egiten dute sentitu duten guztia elkarri kontatzeko.

12 emakumek izena emanik, tailerra asteazkenegun egiten da, 11:15etik 12:45era, Harrobi Gaztelekuan.



Nuevos talleres de marcha nórdica y deporte para las emociones

■ Los centros diurnos comunitarios Lapurbide y Ostoki han vuelto a ofertar dos de las actividades trimestrales que programaron en el mes de octubre: "Marcha nórdica" y "Deporte para las emociones". Tras realizar una evaluación y comprobar su buena acogida y el deseo de sus integrantes de repetir experiencia, se han reanudado ambas actividades hasta el mes de mayo con todas las plazas cubiertas.

Al taller de marcha nórdica se han apuntado 14 personas (4 de ellas, nuevas incorporaciones), que se reúnen en Lapurbide los lunes de 9:30 a 11:00 horas. El primer día se les muestra la técnica de los bastones con el objetivo de que aprendan a mover todos los músculos y a corregir la postura para evitar la sarcopenia (pérdida de masa muscular).

Las salidas suelen ser variadas. En ocasiones se dirigen hacia el monte y otras veces recorren las calles de la localidad. Todas las sesiones concluyen con un estiramiento.

Beneficio físico y emocional

El taller de deporte para las emociones (en la foto) está dirigido exclusivamente a mujeres y el objetivo es que sus usuarias, además de lograr un beneficio físico, se empoderen y saquen provecho emocional de las sesiones. Para ello, se realizan diferentes

actividades deportivas y se trabajan las emociones desde el punto de vista de las desigualdades de género. Un día, por ejemplo, practican boxeo para sacar la rabia y otro día hacen pilates para aprender a respirar. Al finalizar las clases, llevan a cabo una puesta en común de todo lo que han sentido.

El taller, al que se han inscrito 12 mujeres, se desarrolla los miércoles de 11:15 a 12:45 horas en la Casa de la Juventud Harrobi.

Ikasturte bukaerako jaiak maiatzaren 24an / La fiesta de fin de curso será el 24 de mayo

■ Antsoaingo Antzokian egiten da, datorren maiatzaren 24an, 17:30ean, Lapurbide eta Ostoki zentroetan programatutako jardueren ikasturteari bukaera emateko. Ekitaldian jakitera emanen da zer ikastaro eta tailer egiten diren eguneko zentro komunitarioetan jendeak jakin dezan herriak zernolako eskaintza jartzen duen adinekoen eta haien zaintzaileen eta laguntzaileen eskura, dela kulturean, dela kirolean, dela aisian. Jarduerak, "Antsoain, Zaintzen duen Herria" egitasmoaren baitan daude, hau da, bizi-etapa guztien parte-hartze aktiboa eta garapena sustatzeko ekimenaren baitan. Eguneko zentro komunitarioek, izan ere, ekimen horren bidez artatzen dituzte bai adinekoak, bai dibertsitate funtzionala duen jendea.

■ El Teatro de Ansoáin acogerá el próximo viernes 24 de mayo a las 17:30 horas la fiesta para cerrar el curso de las actividades programadas por los centros Lapurbide y Ostoki. Durante el acto, se darán a conocer algunos de los cursos y talleres que se han desarrollado desde los centros diurnos comunitarios para que el público pueda conocer la oferta cultural, deportiva y de ocio que la localidad pone a disposición de las personas mayores y las personas que les prestan cuidados y apoyos. Estas actividades se enmarcan en el proyecto "Ansoáin, Comunidad que Cuida", una iniciativa para fomentar la participación activa y el desarrollo de todas las etapas vitales, en el que los centros diurnos comunitarios centran la atención en las personas mayores y/o con diversidad funcional.

Umore ona eta irriak estresa kontrolatzeko

Buen humor y risas para controlar el estrés

■ Lau ostiraletan (otsaileko azkena eta martxoako lehen hiruak), 15 lagunek parte hartu dute Lapurbide eta Ostoki zentro komunitarioek antolatutako irriterapia tailerlean. Helburua izan da parte-hartzaileen poz eta dibertsio emaria indartzea, enpatia eta komunikazioa sustatzea eta, umore onaren bidez, estresa kontrolatzea. Lau saioetan irriterapia teknikak landu dira, jolasak, gorputz adierazpenak eta musika oinarri harturik. Gaur egun, jarduera ebaluatzen ari dira eta, onuragarria bada, 2024-25eko ikasturtean ere eskainiko da.

■ Durante cuatro viernes (el último de febrero y los tres primeros de marzo), un total de 15 personas han participado en un taller de risoterapia organizado por los centros comunitarios Lapurbide y Ostoki. El objetivo ha sido potenciar el caudal de alegría y diversión de sus participantes, fomentar la empatía y la comunicación y controlar el estrés a través del buen humor. En las cuatro sesiones propuestas se han trabajado técnicas de risoterapia basadas en juegos, expresiones corporales y música. Actualmente se está evaluando la actividad y, si resulta positiva, se ofrecerá en la programación del próximo curso 2024-25.



Tu esfuerzo merece una acreditación

Zure ahaleginak egiaztatze agiria merezi du

Tu esfuerzo merece una acreditación

Si la falta de un título de formación ha dificultado tu integración laboral, promoción profesional y/o reconocimiento social, ahora puedes obtenerlo. Los Procedimientos de Evaluación y Acreditación de Competencias (PEAC) **permiten obtener una acreditación oficial a aquellas personas que tienen experiencia laboral demostrable o que han recibido formación no formal**, es decir, formación realizada fuera del sistema educativo oficial.

PARA MÁS INFORMACIÓN

info@atana.org

www.acreditanavarra.es



Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Antsoain buru-belarri Korrikaren alde

..... Ansoáin se vuelca con la Korrika

Korrika dela eta, hamaika ekitaldi egin dira Antsoainen otsailaren 10etik martxoaren 16ra. Otsailean, “Korrikaren historia” erakusketa egon zen ikusgai Idaki kirol instalazioetan. Gero, otsailaren 13an, ‘eMcumeak’ lana eman zen, “euskal sortzaileen egoera agertzeko eta kultur gintzaren antrozentrismoa ikusarazteko”. Martxoaren 2an, bestalde, Herri Korrika egin zen Ezkaba Ikastetxean: musika, erraldioak, animazioa, pintxoak... Martxoaren 15ean, berriz, Ezkaba Ikastetxeak Korrika Txikia antolatu zuen bertako ikasleendako. Bukatzeko, martxoaren 16an, Korrika 2024 herrira iritsi, ehunka lagun harrera beroaren artean, eta jende aunitz ere ibili zen kalez kale korrika.

La celebración de la Korrika 2024 dejó múltiples actividades en Ansoáin del 10 de febrero al 16 de marzo. Durante el mes de febrero se pudo visitar la exposición “Korrikaren historia” en las instalaciones deportivas Idaki. Dentro de este mismo ciclo, el 13 de febrero se representó la obra ‘eMcumeak’, que “escenifica la situación de las creadoras vascas y visibiliza el androcentrismo del sector cultural”. Además, el 2 de marzo se celebró la Herri Korrika en el patio del Colegio Ezkaba con música, gigantes, animación, pintxos..., y el viernes 15 de marzo el Colegio Ezkaba organizó la Korrika Txikia para su alumnado. Como broche final, el 16 de marzo por la tarde cientos de personas recibieron a la Korrika 2024 a su paso por las calles de Ansoáin.



Dirulaguntza berriak errotulaziorako eta webguneak euskaratzeko

■ Antsoaingo Udalak dirulaguntzak emanen dizkie Antsoainen kokaturiko elkarte eta establezimenduei, errotulazioetan euskara hutsa edota euskara eta gaztelania erabiltzen badute (fatxadak, erakusleihoak, eguzkitakoak, ibilgailu komertzialak) edota webgunea euskaratzen badute. Eskabideak abenduaren 1era arte aurkezten ahaliko dira, eta Udalak gastuaren erdia har dezake bere gain.

Nuevas ayudas para rotulación y traducción de páginas web

■ El Ayuntamiento de Ansoáin concederá subvenciones a las asociaciones y establecimientos ubicados en Ansoáin que utilicen el euskera o el euskera y castellano para la rotulación de sus establecimientos (fachadas, escaparates, toldos, vehículos comerciales) o para la traducción de su página web. Las solicitudes se pueden presentar hasta el próximo 1 de diciembre y el Ayuntamiento puede hacerse cargo de hasta un 50% del gasto.

Antsoaingo Euskararen Eguna maiatzaren 11n, larunbatarekin

■ Heldu den maiatzaren 11n (larunbata), Antsoaingo Euskararen Eguna ospatuko da. Hamaika ekitaldi izanen dira egun osoan, hots, musika, herri bazkaria, jolasak, jarduerak eta dantzak herritar guztiendako. Helburua da euskararen erabilera gure herrian sustatzea.

Ansoáin celebrará el Euskararen Eguna el sábado 11 de mayo

■ El próximo sábado 11 de mayo Ansoáin celebrará el Euskararen Eguna, una jornada con mucha música, comida popular, juegos, actividades y bailes para toda la ciudadanía que tiene como objetivo promocionar el uso del euskera en nuestro municipio.

KIROLAK / DEPORTES


Gazte Berriak futbol-klubarekin egindako hitzarmen berriak herrikoen parte-hartzea sustatzen du, bai eta indarkeria kirolek desagerraraztea ere

.....
El nuevo convenio con el Club de Fútbol Gazte Berriak fomenta la participación local y la erradicación de la violencia en el deporte

■ Udalak eta Gazte Berriak futbol-klubak kirola sustatzeko eta kirol eskolak kudeatzeko hitzarmena sinatu zuten, joan den martxoaren 15ean. Aurten, hitzarmenak berritasun nabarmenak jaso ditu, besteak beste guztiendako kirol inklusiboa bultzatzea, haur eta nerabeetan kirolean dagoen indarkeriari aurre egiteko protokoloa garatzea, eta kirolariak nahiz arduradunak teknologia digitalak arduraz erabiltzea. Halaber, hitzarmenean lehen aldiz jaso da herrikoen parte-hartzea sustatuko dela kirolean, klubak sarituz, zenbat kirolari errolatu dituzten kontuan hartuta. “Guztiendako kirola” goibururekin bat, debeku da maila neurtzeko probak egitea kirolariak sartzeko bide gisa edota talde bat osatzea gehienbat errol-

datuekin eta beste bat gehienbat errolatuak ez daudenekin.

Kiroleko indarkeria desagerrarazte aldera, Gazte Berriak futbol-klubak adingabea babesteko ordezkari bat izan beharko du, bai eta haur eta nerabeen arteko indarkeriaren aurka jokatzeko protokolo bat ere. Klubak, gainera, jarduketa-protokolo bat prestatu eta zabaldu beharko du bere langileen artean zelaiko ordezkari aritzen direnentzat, jokabide desagokiak errotik eragozteko. Hitzarmenean ere bestelako aldaketak izan dira, hala nola genero berdintasunaren sustapena, euskara, eta teknologien erabilera, edo sarrerak saltzeko irizpideen arauketa partiduetan edo kirol ekitaldietan.



■ El Ayuntamiento y el Club de Fútbol Gazte Berriak firmaron el pasado 15 de marzo el convenio para la promoción deportiva y la gestión de las escuelas deportivas. Este año, el acuerdo recoge importantes novedades destinadas a impulsar el deporte inclusivo para todas/os y desarrollar el protocolo de actuación frente a la violencia en la infancia y adolescencia en el ámbito deportivo y el uso responsable de las tecnologías digitales por parte de deportistas y responsables, entre otras cuestiones.

Una de las novedades en estos convenios es el fomento de la participación local en el deporte mediante la gratificación a los clubes según su número de deportistas empadronados/as.

En la línea de “Deporte para todas/os” queda prohibido hacer pruebas de nivel como método de acceso

a deportistas o formar un equipo con mayoría de personas empadronadas y otro con mayoría de personas no empadronadas.

